


### Medikuntza

Erromako medikuntza greziarren ondorengoa zen. Mediku grekoak, hala nola Hipokrates (K.a. V. mendea) eta Galeno (K.o. II. mendea), erromatar medikuntzaren aitzindari izan ziren, eta aditu nagusitzat zeuzkaten Erdi Aro osoan zehar eta garai modernoaren parte batean ere. Medikuntza eta kirurgia tresnen artean honako hauek erabiltzen zituzten:

Tresna kirurgiko hau **Atxako kanpamentu militarrean** aurkitu zen.

**Atxako kanpamentu militarra:** Atxako kanpamentu hori egungo Gasteizko hirigunearen iparraldeko ertzean kokaturik zegoen, Zadorra Hiribidearen eta Wellington Dukearen elkargunean. Muino baten gainean, iparraldetik Zadorra ibaiaren gaineko 20 metroko ezponda batek babesturik, herrigune bat zegoen toki horretan bigarren Burdin Aroan, gero inor ez zen bizi garai batez, eta K.o. I. mendean kanpamentu militarra finkatu zen bertan. Handik Zadorrako ibarra eta Astorga-Bordele galtzadaren aldea kontrolatzen zituzten. Kanpamentuak ez zuen denbora askorik iraun, baina bertako zabortegiak aurkitu izanak kanpamentuarekin zerikusia duen material kopuru handia eman digu.



Pieza guztiz berezi hau orratz oftalmologikoa da, Iruñian aurkitua. Brontzeko tresna mehea da, zilarrezko inkrustazioak dituena, eta katarrak operatzeko erabiltzen zen. Orratza zorrotz batean ezartzen zuten eta aldagarria zen. Objektu hau Iruñian aurkitu izanak garbi adierazten digu bazela bertan halako ebakuntza zailetan espezializaturik zegoen zirujaurik. Gainera, ondoko irudian ikus dezakezu nola egiten zen katarata-ebakuntza I. mendean.

**1.-** Ebakuntza egin aurretik, gaixoak gutxi jan behar zuen, hiru egunetan ura besterik ez zuen edaten eta bezperako egunean erabateko baraua egin behar zuen.

**2.-** Guztia horrela antolaturik, gaixoa toki ongi argiztatuan eseraraziko zuten, aurpegia argiari begira, zirujaua haren atzetik kokatzen zela, goraxeago ezarriko eserleku batean.

**3.-** Laguntzaile batek, atzealdetik, tinko eusten zion gaixoaren buruari, zeren eta mugimendurik txikienak ikusmena betiko galtzea ekar dezakeen. Operatu beharreko begia geldirik edukitzeko premia zegoen, eta bestearen gainean artile zati bat jarri ohi zuten, bendaje batez eutsirik.

**4.-** Ebakuntzari ekiterakoan, zirujauak orratz zorrotza hartu eta lerro zuzenaren arabera sartzen zuen lehen bi geruzetan zehar, kanpoko angeluaren eta begi-niniaren artean eta, katarataren erdi aldean, inongo zainik ez zauritzeko eran, baina segurtasunez, gune hutsean sartzen baitzen.

**5.-** Katarata heldutakoan (erresistentziarik batere ez dagoenez, ez dago huts egiterik), zirujauak orratza katarata aldera makurtu eta, errotazio mugimendu arin batez, kristalinoa begi-niniaren azpitik ezartzen zuen eztiki. Orduan, indar handiago egin behar zuen katarata behean finkatzeko.

**6.-** Katarata egoera horretan geratzen bazen, operazioa amaiturik zegoen, baina berriro igoz gero, hainbat puskatan zatitu beharra zegoen, zati horiek behean errazago geratzen baitziren, eta traba gutxiago egiten zioten ikusmenari.

**7.-** Gero, orratza lerro zuzenaren arabera erretiraturik, begia arrautza zuringoan bustiriko artile leuneko puska batez estali, gainetik hanturaren aurkako botikak ezarri eta dena bendaje batez lotzen zuten.